


**IKUSEZINTASUNAK ERE  
ERASOTZEN GAITU**



**AZAROAK 25**

**GENERO BORTIZKERIAREN PREBENTZIORAKO  
JARDUERA DIDAKTIKOAK**



**EILASSTEE-EILASSTEE-EILAS**



## IKUSEZINTASUNAK ERE, ERASOTZEN GAITU

### SARRERA:

Aurtengo **azaroaren 25**ean gure gertuko historiari erreferentzia egin nahi diogu. Azken bolada honetan asko hitz egin da "Memoria historikoaren legea"ri buruz, ahalegin handiak egin dira diktadura garaian egindako injustiziei errekonozimendu historikoa emateko. Guk, egun seinalatu honetan garai hartako emakumeak gogoratu nahi ditugu. Gehienak, askotan gertatzen den bezala, ikusezinak baitira, eta garai hartan jasandako bortizkeriaz aparte ikusezintasunak ere erasotzen dituelako.

Beste aldetik, ez dugu ahaztu behar Errepublikarekin lortutako emakumeen eskubideak diktadurarekin galdu egin zirela.

Ikasturte honetan proposatzen ditugun jarduerak ikuspegi desberdinetatik landu daitezke: historia, politika, giza-eskubide, feminista, mediatiko, gerra..., eta batez ere emakumeek jokatu zuten paperaren analisiaren aldetik. Jarduera hauekin guztiekin ikusezintasunetik atera nahi ditugu Las trece rosas, Teresa, Manolita, Nieves... gure amamak, eta amak, errepublikako maistra errepresaliatuak, "gorriak" izateagatik edota haien gurasoak, senarrak edota seme-alabak zigortzeko mota guztietako zigorrak eta apalkeriak jaso zituzten guztiak.



## **HASI BAINO LEHEN GOGORATZEKO:**

Sarreran aipatutako puntuaz aparte, ezin dugu ahaztu **azaroaren 25**eko jatorria eta esanahia: nondik sortzen den ospatzeko beharra, zergatik egun honetan, zer errebindikatu nahi den, beharrezkoa den, nola islatzen den erakunde eta komunikabideetan... Urtero bezala, ikasleei proposatuko genieke egun horrekin lotuta daukaten informazioa eta ezagutzaz hitz egitea. Horretarako egun horietako prentsa, internet, telebistako saioak, erakunde desberdinek prestatutako materiala, iragarkiak... erabiltzea. Inportantea da bortizkeriaren eragin txarraz kontzientzia hartzea.

*Dataren historia pixka bat: Karibeko eta Hegoamerikako 1. topaketa feministak 1981ean Bogotan (Colombia) burutu ziren eta horietan azaroaren 25a Emakumearekiko Indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna izendatu zen. 1999an Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen kontrako bortizkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna" sortu zuen.*

*Egun hori Mirabal ahizpen hilketaren oroitzeko aukeratu zen. Mirabal ahizpak Dominikar Errepublikako 3 ekintzaile politiko izan ziren eta 1960ko azaroaren 25ean Rafael Trujillo diktadorearen polizia bortizki hil zituen.*

Hemen aurkezten dizuegun materiala ikasturteko beste edozein egunetan erabiltzekoa izan daiteke, egunero lan egin behar baita genero berdintasunean. Jarduerak lehen zein bigarren hezkuntzan landu daitezke, beti ere talde eta adinari egokitzuz Aurkezten diren ekintzak lanean hasteko ideiak besterik ez dira, hortik aurrera norbere imajinazioa eta gogoia nagusi!



## **HELBURU OROKORRAK:**

- Ikasleek tratu txarrei buruz hausnartzea.
- Ikusezintasunaz ohartzea.
- Gerra garaian eta historikoki transmititu den emakumeen paperaz ohartzea.
- Neska eta mutilen artean egon daitezkeen iritzi/bizipen desberdinei buruz hausnartzea.

## **LEHEN EKINTZA MULTZOA. GAIA: IKUSEZINTASUNA**

### **Abiapuntua: STEE-EILASen kartela**

#### **1. JARDUERA: Elkarrizketa**

**Helburua:** Ikusezintasunaz kontzientzia hartzea.

**Materiala:** STEE-EILASen kartela, arbela.

**Taldekatzea:** Talde osoa

#### **Metodologia:**

1. Irakasleak STEE-EILASen kartela arbelean jarriko du:
  - Zer ikusten duzue?
  - Zer jartzen du?
2. Ikusezintasunari buruzko galdera/ideia zaparrada:
  - Noizbait ikusezinak sentitu zarete?
  - Noiz, ze egoeretan?
  - Nola sentitu zarete?
  - Zer esan/egingo zenuke horrelako kasuetan?
  - Zer esango zenieke horrela sentiarazten zaituztenei?
  - Zer gertatzen da norbait edo zerbait ikusezina denean? Existitzen ez dela esan nahi al du?



## 2. JARDUERA: Jolasak

**Helburua:** Ikusezintasuna sentitzea

**Materiala:** Baloia

**Taldekatzea:** Talde txiki nahiz handia.

**Deskripzioa:**

- **Lehen jolasa:** Ikasle bat edo batzuk gelatik kanpora joango dira. Gela barrukoei jolasa azalduko zaie: borobila egingo dute eta baloia elkarri pasako diote inongo ordenarik gabe, kanpoan egon direnei ez diete pasako baloia. Baloia botatzerakoan bestearen izena esan daiteke jasotzen duenaren ikusgarritasuna handiagoa izateko.
- **Bigarren jolasa:** Ikasle bat kanpora joango da. Barrukoei jolasa azaltzen zaie: Ikasleak gelatik zehar ibiliko dira eta beste batekin topo egiterakoan eskua emanaz agurtuko dute elkar, kontsigna da kanpoan geratu den horri inork ezin izango diola kasurik egin.

Bi jolas horien ondoren borobilean jarri eta esperientziak elkar trukatu:

- Ikusezinak izan direnei galderak: zer sentitu duzue, nola sentitu zarete,...
- Ikusezintasuna sentiarazi dutenei: zer sentitu duzue kideak ikusezin bihurtuz, jarriko al zinatekete beraien lekuan...



### **3.JARDUERA: Marrazkiak**

**Helburua:** Ikusezintasunaren aurrean neska eta mutilen arteko bizipenetan desberdintasunik dagoen hausnartzea

**Materiala:** Paper jarraia eta margoak.

**Taldekatzea:** Talde txikiak

**Deskripzioa:** Talde bakoitzari beraien marrazkian neskak ala mutilak bakarrik irudikatzeko kontsigna emango zaio isilean, hau da, beste taldeetakoek entzuten ez dutela . Marrazkiak bukatu ondoren horien inguruko elkarrizketa talde haundian:

- Zer ikusten duzue hemen?
- Zer gertatzen da?
- Nola sentitzen zarete marrazki honen aurrean, eta beste honen aurrean?
- Zein da gehienetan ikusten duzuen eredua?



**BIGARREN EKINTZA MULTZOA. GAIA:**  
**Emakumeak errepublikan, gerran eta frankismoan.**

**Abiapuntua:** bideoren bat, argazkiak,...

**1. JARDUERA: Elkarrizketa eta etxerako galdeketa**

**Helburua:** Errepublika eta guda garaiko emakumeen bizitzaz jabetzea.

**Materiala:** Etxerako galdeketa

**Deskripzioa:** Talde handian ikasleei beraien amona eta birramonen garaiko emakumeei dakitenari buruz galdetu, eskolara joaten ziren, zer lan egiten zuten, guda bizi izan zuten...dakitenari buruzko ideia zaparrada bota dezatela eta irakasleak ideia horiek arbelean idatziko ditu.Gero, gehiago jakiteko, etxera eramateko inkesta sortu denen artean. Inkestan sar daitezken galderak:

- Bere **amona,birramona edo garai hartako beste edozein emakumeren** bizimodua gogoratu. Datuak jaso.
- Eskolara joan ziren? Zer ikasi zuten? Zenbat urterekin bukatu zuten?
- Zertan lan egiten zuten?Eta beraien amek, amonek?
- Guda bizi izan zuten? Eta beraien amek?
- Nolakoa izan zen beraien bizimodua gerrak iraun zuen bitartean?
- Emakumeek ez bazuten etxetik kanpo lan egin, zergatik?

Inkestak ekartzen dituztenean bateratu eta aurre ideiekin bat datozen ikusi.



## 2. JARDUERA: Argazkiei buruzko hipotesiak

**Helburua:** Errepublikak eta guda garaiko emakumeen bizitzaz jabetzea.

**Materiala:** Errepublikak eta gerra garaiko emakumeen argazkiak. Hurrengo web orrietan hainbat argazki dituzue:

- [www.sbhac.net/memoria](http://www.sbhac.net/memoria) (imagenes-heroicas mujeres republicanas)
- [www.asturiasrepublicana.com](http://www.asturiasrepublicana.com) (bigarren errepublika-la libertad es un bien preciado-fotos de prisioneras en la carcel de Saturraran)

**Taldekatzea:** Talde txikiak eta talde handia

**Deskripzioa:** Talde bakoitzari argazki bat edo bi emango zaizkio eta horren inguruko elkarrizketa izango dute: emakume horiek zertan ari diren, non dauden... Gero denak elkartu eta bakoitzari tokatutako argazkiaren hipotesiak egingo ditu. Irakasleak egoera errealak zein den azalduko die. Argazki guztiekin horma-irudi bat egin daiteke edo bururatzen zaizuen beste hainbat ekintza.



### **3.JARDUERA: Errepublika, guda zibila eta frankismoko egoeraz informazio bilaketa.**

**Materiala:** Iturri desberdinetik lortutako materiala: liburuak, aldizkariak, web orriak...

#### **Deskripzioa:**

1.-Irakasleak gela talde txikitan banatuko du. Talde bakoitzari informazio mota bat bilatzeko eskatuko dio ildoak hauek izan daitezkelarik:

- Errepublika garaia: bizimodua, giza eskubideak...
- Guda zibila: suposatu zuena, gizartea banatuta, herrietan sortu zen giroa, pertsekuzioak, "makiak"...
- Diktadura: bizimodu aldaketa, galdutako eskubideak, kaleko giroa...

2.-Talde handian komunean jarriko dira lan guztiak.

3.-Ondorioak atera:

- Ikasleek emakumeak aipatu al dituzte beraien ikerketan?
- Topatu al dute emakumeei dagokien informaziorik? Hala bada erraza egin al zaie? Ikusezintasun kontzeptuarekin lotu.
- Zer desberdintasun daude gizon eta emakumeen artean, galdu ziren eskubide aldetik, gerra bizitzeko moduan, historikoki tratatuta edo gogoratuta izan diren moduan...
- Gogoeta pertsonala: garai hartan bizitzea tokatu izan balitzaigu...



#### **4. JARDUERA: Emakume testimonio desberdinen bilaketa.**

**Helburua:** Errepublika, guda eta frankismoan emakumeek izan zuten paperaz informazioa lortzea.

**Materiala:** Internet, biblioteka, hemeroteka, entziklopediak, herriko edo etxeko lagun zein senide nagusiak, grabatzailea...

#### **Deskripzioa:**

1.-Irakasleak gela talde txikitik banatuko du. Talde bakoitzari goian aipaturiko garaietako bat ikertzeko eskatuko dio.

- emakumeak errepublikan: militantzia, lana...
- emakumeak gudan: frentean, kartzeletan...
- emakumeak frankismoan: kartzeletan, lan munduan...

Oso interesgarriak izan daitezke gertuko helduen testimonioak

2.-Taldea handian komunean jarriko dira lan guztiak, bilatutako argazkiak, bideoak zein testimonio grafikoekin erakusketa bat egin daiteke.

3.-Ondorioak atera.

- Erraza eginga al zaizue emakumei buruzko informazioa ateratzea?
- Harritu egin al zaituztete aurkitutako informazioek?
- Ze gogoeta egingo zenukete egindako lan honen ondoren.
- ...



## **BIBLIOGRAFIA**

- "Nosotras que perdimos la paz" Llum Quiñonero
- "Las trece rosas" Jesús Ferrero (fikzioa), Carlos Fonseca (ez fikzioa)
- "Martina, la rosa número trece" Angeles López
- "La voz dormida" Dulce Chacon
- "Mala gente que camina" Benjamín Prado
- "Los girasoles ciegos" Alberto Mendez
- "Casilda miliciana" Luis Jimenez de Aberasturi. Txertoa argitaletxea
- "Bortxazko lanak diktadura frankistan" Memoriaren bideak. Web orria ere badaukate. Kapitulu bat azaltzen da emakume presoan lanari buruz. <http://esclavos.investigacion.net/>
- Gehiago: [www.ciudaddemujeres.com/republica](http://www.ciudaddemujeres.com/republica)

## **ARTIKULU ETA LANAK**

- **"Historia de la mujer en España"** Batxillergoko ikasle talde batek egindako lan zabala. Googlen sartu eta aurreko izenburua idatzi.
- **"Emakumeak errepublikan"** Josu Chuecaren artikulua ARGIA astekaria. Googlen izenburua sartu eta azaltzen da.
- **"IV. Historia arloa. Gaiak eta ariketak"** Googlen bilatu: emakumeak errepublikan
- **"Gernikar emakumeak XX.mendean"** Googlen bilatu: emakumeak XX. Mendean.
- [www.bazenbehin.net/irun](http://www.bazenbehin.net/irun) web orri honetan irungo ikastetxeetan (eta Hendaiako batean) egindako esperientzia jasotzen da. Umek helduak elkarrizketatzen dituzte eta gero ipuina sortzen dute.



## **PELIKULAK**

- "Las trece rosas" Emilio Martínez Lázaro
- "Que mi nombre no se borre en la historia" Verónica Vigil- José M<sup>a</sup> Almela (dokumentala)
- "Libertarias" Vicente Aranda
- "Ay Carmela" Carlos Saura
- "Entre rojas" Azucena Rodríguez
- "Tierra y libertad" Kean Loach
- "Silencio Roto" Montxo Armendariz
- Gehiago: [www.ciudaddemujeres.com/republica](http://www.ciudaddemujeres.com/republica)

## **BIDEOAK**

- [www.youtube.com](http://www.youtube.com) en bilatu:
  - Cárcel de mujeres en el franquismo. Saturraranen egin zen omenaldia ETB 2. teleberria. Euskaraz ez dugu bilatu.
  - Cuerda de presas-curt d'animacio
  - Saturraran 1940-2007

## **ARGAZKIAK**

- [www.sbhac.net/memoria](http://www.sbhac.net/memoria) (errepublika garaiko emakumeen argazkiak eta kartelak)
- [www.asturiasrepublicana.com](http://www.asturiasrepublicana.com) (Saturrarango kartzelako argazkiak)

